

**ALKATETZA  
DEKRETUA**

2020 000000995

**Espediente-zenbakia:** 2020/IDA\_DEK0411**Xedea**

COVID-19ak sortutako osasun egoeraren ondorioz 2020ko martxoaren 16ko 765 Alkatetza Dekretuz egindako Tokiko Gobernu Batzarrarengan delegatutako ahalmenen abokazioa bertan behera iztea.

**Aurrekariak**

Lehenengoa: COVID-19aren hedapenak eragindako osasun-alertak sortu duen egoeraren aurrean, Lehendakariak, martxoaren 13ko 6/2020 Dekretua eman zuen, Lehendakariak Euskadiko Herri Babeseko Plana-Larrialdiei Aurregiteko Bidea-Labi zuzentzeko eskumenak bereganatzeko.

Bigarrena: COVID-19ak sortutako osasun krisia kudeatzeko Alarma Egoera ezartzen duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua onartu zen.

Hirugarrena: 2020ko martxoaren 16ko 765 Alkatetza Dekretu bidez, COVID-19aren osasun krisia kudeatzeko martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretu bidez onartu zan Alarma Egoerak irauten eban bitartean, Tokiko Gobernu Batzarrarengan delegatutako ahalmenak abokatzea erabagi zan.

Laugarrena: 2020ko apirilaren 10eko 487/2020 Errege Dekretu bidez, 463/2020 Dekretuz ezarritako Alarma Egoeraren iraunaldia apirilaren 26ra arte luzatzea erabagi zan.

**Argudioak**

Lehenengoa: 2020ko martxoaren 16ko 765 Alkatetza Dekretu bidez Tokiko Gobernu Batzarrarengan delegatutako ahalmenen ganean egindako abokatzea Alarma Egoerak irauten eban epealdirako egin zanez, eta kontutan eukita Alarma Egoeraren iraunaldia apirilaren 26ra arte luzatu dala, egun horretarik aurrera Tokiko Gobernu Batzarrak bere ahalmenak berreskuratu ahal dauz.

Bigarrena: Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 9. eta 10. artikulua.

**Sinadurea eta data**

**Erabagia**

Hori guztia dela eta, honakoa erabagi dot:

**LEHENENGOA:** Tokiko Gobernu Batzarrarengan delegatutako ahalmenen abokatzea bertan behera iztea 2020ko apirilaren 27tik aurrera.

**BIGARRENA:** 2020ko apirilaren 28tik aurrera, Tokiko Gobernu Batzarraren batzarrei barriro ekitea.


**HIRUGARRENA:** Bizkaiko Aldizkari Ofizialean erabaki hau argitaratzea.

**LAUGARRENA:** Hurrengo Osoko Bilkurean erabagiaren barri emotea.

Alarma egoera dela eta, erabaki honek eragina izango du apirilaren 1eko 2020/907 Alkatetza Dekretuaren arabera eta martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 3. Xedapen Gehigarriaren arabera.

Debido al estado de alarma, esta resolución tiene los efectos contemplados en el Decreto de Alcaldía 2020/907 de 1 de abril y en la Disposición Adicional 3ª del Real Decreto 463/2020 de 14 de marzo.

**Oharra:** sinadurea eta datea orri-oinean .

 <b>STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI</b>	Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu. Kodea: 07E4000409EE00P3Q0G8P9Z4R3	<b>Sinadurea eta data</b> ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 16/04/2020 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 16/04/2020 15:06:56	<b>EXPEDIENTE ::</b> 2020IDA_DEK0411 Data: 16/03/2020 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia
---	--	---	---

